79

2024

Kulturaren Euskal Behatokiaren Estatistika eta Azterketa Bilduma
Colección de Estadística y Estudios del Observatorio Vasco de la Cultura

# FINANTZAKETA ETA GASTU PUBLIKOA SORMEN-SEKTOREETAN

EAEko 2022ko TXOSTENA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Kulturaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de la Cultura

79 | 2024

Kulturaren Euskal Behatokiaren Estatistika eta Azterketa Bilduma
Colección de Estadística y Estudios del Observatorio Vasco de la Cultura

# FINANTZAKETA ETA GASTU PUBLIKOA SORMEN-SEKTOREETAN

## EAEko 2022ko TXOSTENA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Kulturaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de la Cultura

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2025

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke:

https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua

**Argitaraldia:** 2024ko azaroan
© Eusko Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

**Argitaratzailea:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco C/ Donostia- San Sebastian 1, Vitoria-Gasteiz 01010

**Koordinazio teknikoa:** ICC-CONSULTORS CULTURALS, SL.
Landa-lana: SIADECO, S.COOP.

**Itzultzailea:** IZO (Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala)

**Diseinua eta maketazioa:** Diagonal I Comunicación 360º
ISBN: 978-84-457-3837-5

**Internet:** www.euskadi.eus

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

# AURKIBIDEA

**AURKEZPENA** 5
**METODOLOGIA** 6
A.1. Fitxa teknikoa 7
A.2. Azterlanaren behaketa-eremua 8
A.2.1. Laginketa-sistema 9
A.2.2. Datuen estrapolazioa 9
A.3. Aztertutako kontzeptuak 10
A.3.1. Sormen-sektoreetako gastuaren izaera ekonomikoa 10
A.3.2. Gastuaren helmuga: sormen-sektoreen deskribapena 12
A.3.3. Sormen-sektoreetako diru-sarrerak 13
A.3.4. Sormen-sektoreetako enplegua 13
A.4. Gastuaren kontsolidazioa 13
**SORMEN-SEKTOREETAKO GASTU LIKIDATUA** 14
B.1. Gastu likidatua sormen-sektorearen arabera 15
B.2. Sormen-sektoreetako gastu likidatua, administrazio-mailen arabera 17
B.3. Sormen-sektoreetako gastuaren pisu erlatiboa 25
B.4. Sormen-sektoreetako gastu likidatuaren sailkapen ekonomikoa 28
**SORMEN-SEKTOREETAKO GASTU KONTSOLIDATUA** 38
C.1. Helmugako kontsolidazioa eta transferentzien fluxuak administrazio-mailen arabera 39
C.2. Gastu kontsolidatua sormen-sektorearen arabera 40
C.3. Gastu kontsolidatua administrazio-mailen arabera 42
C.4. Gastu kontsolidatua izaera ekonomikoaren arabera 44
C.5. Sormen-sektoreetako gastu kontsolidatua biztanleko 47
**SORMEN-SEKTOREETAKO ENPLEGUA** 49
**ERANSKINAK** 53
1. Azterlaneko parte-hartzaileen zerrenda 53

# AURKEZPENA

Eusko Jaurlaritzako Kulturaren Euskal Behatokiak sustatutako estatistika honen helburua da sormen-sektoreetara bideratutako aurrekontu publikoei eta sektore horietan organismo publikoetan sortutako enpleguari buruzko informazioa ematea. Bigarren edizioa da, eta 2022. urteari buruzko informazioa jasotzen du. Lehenengo edizioa 2020ko datuekin egin zen. Eragiketa hau 2019-2022 Euskal Estatistika Planean jasotzen da, eta EAEko 2022ko Finantzaketa eta gastu publikoa kulturan estatistikarekiko (estatistikaren zortzigarren edizioa) paraleloan gauzatu da. Bi eragiketen artean, EAEko 2022ko Kultura- eta sormen-sektoreetako finantzaketaren eta gastu publikoaren estatistika prestatu da.

Bi urtez behingo eragiketa horren helburua da EAEko Administrazio Publikoek (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, udalak eta organismo autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak) sormen-sektoreetan egiten duten ekarpen ekonomikoaren eta aplikatzen dituzten sustapen- eta inbertsio-politiken berri izatea.

Bigarren edizio honetan, datuen bilakaera azter daiteke. Nolanahi ere, adierazi behar da estatistikaren lehen urteko datuak COVID-19aren pandemiaren urteari dagozkiola, eta, beraz, baliteke orduan sortutako krisialdiak sormen-sektoreen jardueran eragina izatea. Gainera, estatistikaren lehenengo edizioan, zenbait kontzeptu eta definizio ez zeuden oraindik guztiz definituta lana abiaraztean (izan ere, estatistika bera egitean definitu ziren sormen-sektorearen kontzeptuak lehen aldiz), eta baliteke jasotako datuen zehaztasun-mailak horren eragina jaso izana. Bigarren edizio honek zehaztasun-maila handiagoa dauka. Horregatik guztiagatik, txostenean atzera begirako ikuspegia barne hartzen bada ere, datozen edizioak esanguratsuagoak izango dira bilakaera aztertzeko orduan.

Jarraian, eginiko lanaren emaitzen egitura zehazten da; atal hauek ditu:

**AZTERKETAREN METODOLOGIA**
**SORMEN-SEKTOREETAKO GASTU LIKIDATUA**
**SORMEN-SEKTOREETAKO GASTU KONTSOLIDATUA**
**SORMEN-SEKTOREETAKO ENPLEGUA**

# METODOLOGIA

# A.1 Fitxa teknikoa

**Eragiketaren izena**
Euskal Autonomia Erkidegoko sormen-sektoreetako finantzaketaren eta gastu publikoaren estatistika.

**Aztertutako gaia**
EAEko administrazio publikoak eta haren mendeko organismo autonomoek, sozietate publikoek eta fundazioek sormen-sektoreetara bideratutako aurrekontu publikoa.

**Eragiketaren estatusa**
Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailak garatua. EUSTATek ofizializatua

**Maiztasuna**
Bi urtez behin

**Informazioaren erreferentzia-urtea**
2022

**Informazioa biltzeko aldia**
2023ko iraila – 2024ko martxoa

**Informazioa biltzea**
Informazioa zuzenean jaso da fitxa egituratuaren bidez (euskarri informatikoan eta paperean), entitate desberdinetan: Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, udalak eta organismo autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak. Halaber, aholkularitza eta berariazko laguntza teknikoa ere eskaini dira, entitate bakoitzeko informatzaileen ezaugarri eta beharrizanetara egokituak, hainbat teknikatako mix baten bitartez.

# A.2 Azterlanaren behaketa-eremua

Estatistika honek azterketa-oinarri hauek hartu ditu:

- **Eusko Jaurlaritza, hiru foru-aldundiak** eta EAEko **5.000 biztanletik gorako udalerrietako udalak** (73) barnean hartzen dituen **errolda**-izaerako landa-lana. Azterketa egiteko, horrela estratifikatu dira udalak: 5.000 biztanletik 20.000ra artekoak, 20.000 biztanletik gorakoak eta hiru hiriburuak.

- **5.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietako** tokiko administrazioen **lagin** adierazgarri bat oinarri hartuta (100 udal) egindako landa-lana; 5.000 biztanletik beherako udalerrien % 56,2 dira horiek, eta estratu horretan sartzen diren udalerrietako biztanleen % 58,3 bizi dira aipatutako udalerri horietan.

- Administrazio batek edo batzuek % 100ean partaidetutako **organismo autonomo eta sozietate publikoei** egindako **errolda**-izaerako landa-lana.

**1. Taula.** Aztergai den unibertsoa eta laginaren irismen-ratioak.

| Entitate mota | Unibertsoa | | Lagina | | Laginaren irismena | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Enti. kop. | Biztanleak | Enti. kop. | Biztanleak | Enti. kop. | Biztanleak |
| Foru-aldundiak eta Eusko Jaurlaritza | 4 | 2.186.517 | 4 | 2.186.517 | 100,0 | 100,0 |
| Udalak | 251 | 2.186.517 | 173 | 2.095.287 | 68,9 | 95,8 |
| <5.000 biztanle | 178 | 218.936 | 100 | 127.706 | 56,2 | 58,3 |
| 5.000-20.000 biztanle | 54 | 558.900 | 54 | 558.900 | 100,0 | 100,0 |
| >20.000 biztanle | 16 | 638.351 | 16 | 638.351 | 100,0 | 100,0 |
| Hiriburuak | 3 | 770.330 | 3 | 770.330 | 100,0 | 100,0 |
| Organismo autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak | 7 | - | 7 | - | 100,0 | - |
| **Guztira** | **262** | **2.186.517** | **184** | **-** | **70,2** | **-** |

*Iturria: INE , 2024.*

## A.2.1. Laginketa-sistema

5.000 biztanletik beherako udalerrien lagina hartzeko, laginketa estratifikatua egin da, lurralde historikoaren (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) eta biztanleriaren habitat edo tamainaren (1.000 biztanletik beherako udalerriak, 1.000 eta 2.000 biztanle artekoak, eta 2.000 eta 5.000 biztanle artekoak) araberako esleipen proportzionala eginda. Estratu bakoitzeko udalerri parte-hartzaileen hautaketa zorizkoa izan da, zenbaki aleatorioen bidez. Laginketa-sistema horren bitartez hautatu dira 100 udalerri parte-hartzaileak. Udalerriak eranskinaren lehen atalean, azterlaneko entitate parte-hartzaile guztien zerrendan, daude jasota, lurralde historikoaren arabera.

Honako hauek dira azterlanean parte hartu duten organismo autonomo eta sozietate publikoak:

**Gipuzkoa**

- KULTURA GARAIKIDEAREN NAZIOARTEKO ZENTROA (TABAKALERA)
- ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA
- DONOSTIA SUSTAPENA - FOMENTO SAN SEBASTIÁN SA
- HABE - HELDUEN ALFABETATZE ETA BERREUSKALDUNTZERAKO ERAKUNDEA

**Bizkaia**

- BEAZ SAU
- BILBAO EKINTZA
- SPRI SA

## A.2.2. Datuen estrapolazioa

5.000 biztanletik beherako udalerrietako 100 tokiko administrazioren laginaren datuak EAEko 5.000 biztanletik beherako udalerrien unibertsora (178 udalerri) estrapolatu dira prozesu honen bitartez:

1

100 udaleko lagina banatzea lurralde historikoaren arabera:
Araban 26 udal, Bizkaian 43 udal eta Gipuzkoan 31 udal.

2

Entitate horietako sormen-sektoreetako eta langileen arloko aurrekontuaren biztanleko ratioak kalkulatzea, lurralde historikoaren arabera.

3

Laginaren parte ez diren gainerako 78 tokiko entitateei lortutako ratioak aplikatzea, lurralde historikoaren arabera.

# A.3 Aztertutako kontzeptuak

## A.3.1. Sormen-sektoreetako gastuaren izaera ekonomikoa

2022an sormen-sektoreetan egindako gastu publikoari buruzko azterlan honek aurrekontu-publikoen gastuaren egitura ekonomikoa hartu du oinarri. Egitura horri jarraituz, aurrekontu publikoak honako kapitulu eta azpikapitulu ekonomiko hauetan banatu dira:

## Gastu arrunta

- **I. Langileen gastuak**
  Gastu horietan sartzen dira ordainsariak, kalte-ordainak, kotizazioak, prestazio sozialak, etab.
  - **I.1. Sormen-jarduerako langileak**
    Zuzendarien, teknikarien eta kudeaketa eta administrazioko pertsonen gastuak
  - **I.2. Laguntzarako langileak eta zeharkakoak**
    Garbiketako langileen, mantentze-lanetako teknikarien, segurtasuneko langileen eta abarren gastuak
- **II. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak**
  Entitatearen jarduerarako beharrezkoak diren ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak
  - **II.1. Egiturazko sormen-zerbitzuak**
    Administrazioak edo organismo autonomo batek kontratatutako enpresa-zerbitzuak, batik bat sormen-zerbitzu egonkorrak garatzeko
  - **II.2. Laguntzarako langileak eta zeharkakoak**
    Administrazioaren edo erakunde autonomoaren sormen-zerbitzuentzat beste enpresa batzuek –laguntzakoak irizten zaienak– egindako lanak
  - **II.3. Zerbitzuak eta sormen-jarduerak**
    Administrazioaren kultura-zerbitzuen funtzionamendu-gastuez kanpokoak eta noizbehinkakoak irizten zaien eta izaera iraunkorra ez duten sormen-zerbitzu eta -jarduketen kontratazioari dagozkion gastuak
  - **II.4. Hornikuntza- eta mantentze-gastuak**
    Langileekin loturarik ez duten eta sormen-zerbitzuen funtzionamenduarekin lotuta dauden gastu materialak: hornidurak, bulegoko materiala, garraioa, konponketak, errentamenduak eta kanonak…
  - **II.5. Beste zerbitzu eta gastu batzuk**
    Publizitatea eta propaganda, azterketa eta lan teknikoak, kalte-ordainak, osasun-asistentziako gastuak eta sormen-jarduerarekin lotura duten beste gastu batzuk
- **III. Finantza-gastuak**
  Zor, gordailu eta finantzen interesetatik sortutako gastuak
- **IV. Transferentzia arruntak**
  Eragiketa arruntak finantzatzeko bai sektore publikora eta bai pribatura egindako transferentziak

## Kapital-gastuak

- **IV. Inbertsio errealak**
  Inbertsio iraunkorren gastuak
- **VII. Kapital-transferentziak**
  Inbertsioak finantzatzeko bai sektore publikora eta bai pribatura egindako transferentziak

## Finantza-gastuak

- **VIII. Finantza-aktiboak**
  Finantza-aktiboak erosteko eta gordailuak eta finantzak finkatzeko kredituek sortutako gastuak
- **IX. Finantza-pasiboak**
  Zorrak amortizatzeko eta hirugarrenen gordailuak eta finantzak itzultzeko kredituak

## A.3.2. Gastuaren helmuga: sormen-sektoreen deskribapena

**Sormen-sektoreak**

**01. Hizkuntzaren industriak**
Itzulpenari eta hizkuntza-irakaskuntzari lotutako produktu espezifikoak sortzearekin, arlo horretan zerbitzuak ematearekin edo arlo horretako jarduerarekin batez ere lotutako gastu publikoa. Halaber, aintzat hartuko da hizkuntza-edukietan eta hizkuntzaren teknologietan eginiko gastua.

- **01.1. Itzulpena**
Entitatean bertan eginiko itzulpen-jardueraren nahiz entitatetik kanpoko itzulpen-zerbitzuak kontratatzearen ondoriozko gastua
- **01.2. Hizkuntza-irakaskuntza**
Aintzat hartuko dira hizkuntza-irakaskuntzara bideratutako jarduketa eta baliabide guztiak. Gastuaren zatirik handiena euskara irakastera bideratzen bada ere, beste hizkuntza batzuk irakastera bideratutako gastua ere barne hartuko da
- **01.3. Bestelako gastuak**
Hizkuntza-edukietako, hizkuntzaren teknologietako, eta abarretako gastua

**02. Bideo-jokoak**
Bideo-jokoen garapenarekin lotutako gastu publikoa (garapenak barne hartzen ditu ideiaren kontzepzioa, diseinua, plangintza, ekoizpena, probak, azken ekoizpena eta mantentzea).

**03. Diseinua**
Sektore honetan diseinu espezializatuaren jarduerarekin zerikusia duen gastu publikoari buruzko informazioa lortu nahi da. Diseinuaren sektoreak honako jarduera hauek barne hartzen ditu: diseinu grafikoa, diseinu industriala, espazioen diseinua eta espazioen diseinua edo zerbitzuen diseinua.

**04. Publizitatea eta marketina**
Administrazio publikoaren zerbitzuak edo produktuak sustatzeko eginiko ekintzen diseinuari eta komunikazio-estrategiei lotutako gastu publikoa.

**05. Moda**
Modaren sektorea sustatzearekin lotutako gastu publikoa. Hasiera batean, aurreikusten da alor horri lotutako gastua, neurri handiagoan, modaren industriara bideratutako transferentziei lotuta egotea, eta ez hainbeste entitateak berak eskainitako zerbitzuei.

**06. Arkitektura**
Arkitekturaren arloko sormen-zerbitzuetara lotutako gastu publikoa (ingeniaritza- eta eraikuntza-zerbitzuak salbu). Barne har daitezke arkitekturako aholkularitza-zerbitzuak, hiri-plangintza, landakoa eta paisaiarena, eta abar

**07. Sormen-gastronomia**
Sormen-gastronomiaren sustapenarekin lotutako gastu publikoari buruzko informazioa eskuratu nahi da. Sormen-gastronomiaren ezaugarri nagusia da teknika berriak aplikatzen dituela eta elaborazioetan berritzen duela.

Gorago adierazitako sormen-sektoreez gain, beste kategoria bat ere sortu da: **Kultura- eta sormen-industrien (KSI) zeharkako sektorea**. Kategoria horretan sartu dira sormen-sektoreetako batean banakatu ezin izan diren aurrekontu-partidak eta kultura- eta sormen-industriei lotutako partidak.

### A.3.3. Sormen-sektoreetako diru-sarrerak

**Diru-sarreren jatorria aztertu da**

**Jatorri publikoko diru-sarrerak**
EAEko administrazio publikoetatik zein estatuarengandik jasotako dirulaguntzak

**Izaera pribatuko diru-sarrerak**
Entitateen diru-sarrera propioak

### A.3.4. Sormen-sektoreetako enplegua

Sormen-sektoreei lotutako enplegu propioarekin zerikusia duen informazioa bildu da, gizonen eta emakumeen arteko bereizketa eginda.

## A.4 Gastuaren kontsolidazioa

Azterlan honetan bildu eta eskaintzen den informazioa 2022ko aurrekontu likidatutik atera da, aztertutako entitate publikoen obligazio aitortuen fasetik. Lehen informazio-maila horri gastu likidatu deritzo, eta aukera ematen digu azterketa-unibertsoa osatzen duten entitateek sormen-sektoreetara bideratu zuten gastu «gordina» zein den jakiteko.

Informazio horren bitartez, gastuaren kontsolidazioa egin da: azterlanean parte hartu duten entitateen arteko transferentzia ekonomikoetatik eratorritako kontabilitate bikoitza neutralizatzeko arazketa-prozesua (gastu eta diru-sarreren IV. eta VII. kapituluak). Horri esker, sormen-sektoreetan egindako gastu «garbiari» buruzko datuak eskaintzen ditu azterlanak.

# SORMEN-SEKTOREETAKO GASTU LIKIDATUA

## B.1 Gastu likidatua sormen-sektorearen arabera

EAEko administrazio publikoek 2022an sormen-sektoreetan izandako gastu likidatuaren multzoa 215.354.085 eurokoa da. Zatirik handiena Hizkuntzaren industriak sektoreari dagokio (144 milioi euro eta gastuaren % 67). Sektore horren barruan, hizkuntza-irakaskuntza da 2022an baliabide gehien jaso dituen azpisektorea; zehazki, 136,8 milioi euro jaso ditu. Euskal administrazio publikoak 7 milioi euro bideratu ditu itzulpenera, eta 0,1 milioi euro Hizkuntzaren industriak sektoreko beste jarduera batzuetara (hizkuntzen teknologia, etab.). Gasturik handiena izan duen bigarren sektorea Arkitektura da (37 milioi euro eta gastuaren % 17), eta, jarraian, Publizitatea eta marketina sektorea dago (27 milioi euro eta gastuaren % 13).

Gainerako sormen-sektoreetako gastua nabarmen txikiagoa da; horietan guztietan, guztizko gastuaren % 1eko edo beherako balioak erregistratu dira. Diseinua, 2,9 milioi euro; Kultura- eta sormen-industrien (KSI) zeharkako sektorea, 2,2 milioi euro; eta Sormen-gastronomia, 1,7 milioi euro. Eta, azkenik, Moda (402 mila euro) eta Bideo-jokoak (308 mila euro).

**1. Grafikoa.** Sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastu likidatua (€) 2020-2022.



**2. Taula.** Sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastu likidatua, 2020-2022.

| Sormen-sektorea | Edizioa | Zenbatekoa (€) | % | Bilakaera 2020-2022 (%) |
|---|---|---|---|---|
| **1. Hizkuntzaren industriak** | 2020 | 119.202.615 | 66,2 | - |
| | **2022** | **144.013.477** | **66,9** | ▲ 20,8 |
| 1.1. Itzulpena | 2020 | 5.898.837 | 3,3 | - |
| | **2022** | **7.030.114** | **3,3** | ▲ 19,2 |
| 1.2. Hizkuntzairakaskuntza | 2020 | 112.677.709 | 62,6 | - |
| | **2022** | **136.837.637** | **63,5** | ▲ 21,4 |
| 1.3. Beste batzuk | 2020 | 626.068 | 0,3 | - |
| | **2022** | **145.726** | **0,1** | ▼ 76,7 |
| **2. Bideo-jokoak** | 2020 | 282.253 | 0,2 | - |
| | **2022** | **308.234** | **0,1** | ▲ 9,2 |
| **3. Diseinua** | 2020 | 1.860.072 | 1,0 | - |
| | **2022** | **2.877.319** | **1,3** | ▲ 54,7 |
| **4. Publizitatea eta marketina** | 2020 | 25.217.944 | 14,0 | - |
| | **2022** | **26.949.142** | **12,5** | ▲ 6,9 |
| **5. Moda** | 2020 | 509.608 | 0,3 | - |
| | **2022** | **401.700** | **0,2** | ▼ 21,2 |
| **6. Arkitektura** | 2020 | 30.679.450 | 17,0 | - |
| | **2022** | **36.969.577** | **17,2** | ▲ 20,5 |
| **7. Sormen-gastronomia** | 2020 | 618.750 | 0,3 | - |
| | **2022** | **1.658.302** | **0,8** | ▲ 168,0 |
| **0. KSIen sektorea** | 2020 | 1.760.138 | 1,0 | - |
| | **2022** | **2.176.334** | **1,0** | ▲ 23,6 |
| **Guztira** | 2020 | 180.130.830 | 100,0 | - |
| | **2022** | **215.354.085** | **100,0** | ▲ 19,6 |

Sormen-sektoreetako gastuaren 2020-2022 bilakaera aztertuta, ikus daiteke gastua nabarmen igo dela. Izan ere, % 20 areagotu da, 180,1 milioi eurotik 215,4 milioi eurora.

Termino absolutuetan, areagotze handiena izan duen sormen-sektorea Hizkuntzaren industriak izan da, eta, horren barruan, hizkuntza-irakaskuntzaren azpisektorea. Azpisektore hori 112,7 milioi eurotik 136,8 milioi eurora igo da (hau da, % 21eko areagotzea izan du). Horren arrazoi nagusia da Eusko Jaurlaritzan izan den 15 milioi euroko areagotzea, bai eta HABE - Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea organismoan izan den 6,2 milioi euroko areagotzea ere.

Portzentualki, 2020. urtearekin alderatuta areagotze handiena izan duen sektorea Sormenezko gastronomia izan da; sektore horretako gastua % 168 areagotu da 2020. urteko gastuari dagokionez. Igoera hori Eusko Jaurlaritzak Basque Culinary Center Fundazioari eginiko

transferentziak areagotzearen ondoriozkoa da (1 milioi euro gehiago transferitu zaizkio entitateari). Termino portzentualetan, halaber, Diseinua sektorean gastua nabarmen igo da (% 55), 1,9 milioi euro izatetik 2,9 milioi euro izatera.

## B.2 Sormen-sektoreetako gastu likidatua, administrazio-mailen arabera

Atal honetan, administrazio-maila bakoitzean —hau da, Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, udalak eta organismo autonomoak eta sozietate publikoak— sormen-sektoreetako gastu likidatua aztertzen da.

**2. Grafikoa.** Sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastu likidatua, administrazio-mailen arabera (€), 2022.



**3. Taula.** Sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastu likidatua, administrazio-mailen arabera, 2020-2022.

| Sormen-sektorea | Edizioa | Eusko Jaurlaritza | | | Foru-Aldundiak | | | Udalak | | | Organismo autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak | | | Guztira | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Zenbatekoa (€) | % | Bilakaera 2020-2022 (%) | Zenbatekoa (€) | % | Bilakaera 2020-2022 (%) | Zenbatekoa (€) | % | Bilakaera 2020-2022 (%) | Zenbatekoa (€) | % | Bilakaera 2020-2022 (%) | Zenbatekoa (€) | % | Bilakaera 2020-2022 (%) |
| 1. Hizkuntzaren industriak | 2020 | 50.297.932 | 42,2 | - | 3.288.331 | 2,8 | - | 17.746.979 | 14,9 | - | 47.869.373 | 40,2 | - | 119.202.615 | 100,0 | - |
| | **2022** | **65.262.845** | **45,3** | 29,8 | **2.886.885** | **2,0** | -12,2 | **21.434.138** | **14,9** | 20,8 | **54.429.609** | **37,8** | 13,7 | **144.013.477** | **100,0** | ^ 20,8 |
| 2. Bideo-jokoak | 2020 | 45.995 | 16,3 | - | 181.258 | 64,2 | - | 0 | 0,0 | - | 55.000 | 19,5 | - | 282.253 | 100,0 | - |
| | **2022** | **151.000** | **49,0** | 228,3 | **71.415** | **23,2** | -60,6 | **70.219** | **22,8** | - | **15.600** | **5,1** | -71,6 | **308.234** | **100,0** | ^ 9,2 |
| 3. Diseinua | 2020 | 708.385 | 38,1 | - | 493.152 | 26,5 | - | 418.060 | 22,5 | - | 240.475 | 12,9 | - | 1.860.072 | 100,0 | - |
| | **2022** | **1.164.271** | **40,5** | 64,4 | **484.318** | **16,8** | -1,8 | **893.400** | **31,0** | 113,7 | **335.330** | **11,7** | 39,4 | **2.877.319** | **100,0** | ^ 54,7 |
| 4. Publizitatea eta marketina | 2020 | 8.762.623 | 34,7 | - | 6.037.201 | 23,9 | - | 9.326.201 | 37,0 | - | 1.091.919 | 4,3 | - | 25.217.944 | 100,0 | - |
| | **2022** | **8.709.771** | **32,3** | -0,6 | **6.156.665** | **22,8** | 2,0 | **10.669.797** | **39,6** | 14,4 | **1.412.909** | **5,2** | 29,4 | **26.949.142** | **100,0** | ^ 6,9 |
| 5. Moda | 2020 | 0 | 0,0 | - | 375.020 | 73,6 | - | 0 | 0,0 | - | 134.588 | 26,4 | - | 509.608 | 100,0 | - |
| | **2022** | **0** | **0,0** | - | **239.200** | **59,5** | -36,2 | **37.500** | **9,3** | - | **125.000** | **31,1** | -7,1 | **401.700** | **100,0** | v 21,2 |
| 6. Arkitektura | 2020 | 3.232.559 | 10,5 | - | 10.600.755 | 34,6 | - | 16.837.862 | 54,9 | - | 8.274 | 0,0 | - | 30.679.450 | 100,0 | - |
| | **2022** | **3.489.108** | **9,4** | 7,9 | **15.846.400** | **42,9** | 49,5 | **17.552.168** | **47,5** | 4,2 | **81.901** | **0,2** | 889,9 | **36.969.577** | **100,0** | ^ 20,5 |
| 7. Sormen-gastronomia | 2020 | 500.000 | 80,8 | - | 118.750 | 19,2 | - | 0 | 0,0 | - | 0 | 0,0 | - | 618.750 | 100,0 | - |
| | **2022** | **1.050.000** | **63,3** | 110,0 | **241.890** | **14,6** | 103,7 | **3.412** | **0,2** | - | **363.000** | **21,9** | - | **1.658.302** | **100,0** | ^ 168,0 |
| 0. KSI sektorea | 2020 | 1.197.706 | 68,0 | - | 562.432 | 32,0 | - | 0 | 0,0 | - | 0 | 0,0 | - | 1.760.138 | 100,0 | - |
| | **2022** | **1.444.657** | **66,4** | 20,6 | **731.677** | **33,6** | 30,1 | **0** | **0,0** | - | **0** | **0,0** | - | **2.176.334** | **100,0** | ^ 23,6 |
| Guztira | 2020 | 64.745.200 | 35,9 | - | 21.656.898 | 12,0 | - | 44.329.102 | 24,6 | - | 49.399.630 | 27,4 | - | 180.130.830 | 100,0 | - |
| | **2022** | **81.271.652** | **37,7** | ^ 25,5 | **26.658.450** | **12,4** | ^ 23,1 | **50.660.635** | **23,5** | ^ 14,3 | **56.763.349** | **26,4** | ^ 14,9 | **215.354.085** | **100,0** | ^ 19,6 |

## Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzak sormen-sektoreetara bideratutako guztizko gastu likidatua 81,3 milioi eurokoa da. Zatirik handiena Hizkuntzaren industriak sektorera bideratu da; zehazki, 65,3 milioi euro. Aurreko edizioan ikus daitekeen moduan, sektore hori oso gainetik dago besteengandik jasotako baliabideei dagokienez. Zenbateko horren zati handi bat hizkuntza-irakaskuntzari dagokio (63,7 milioi euro); eta atal honetan aipatu behar da, halaber, Eusko Jaurlaritzak HABE - Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea entitateari eginiko 46,5 milioi euroko transferentzia (aurreko edizioan baino 6,6 milioi euro gehiago).

Eusko Jaurlaritzak 8,7 milioi euro bideratu ditu Publizitatea eta marketina sektorera. Batez ere erakundearen komunikazioarekin eta komunikabideetan eginiko kanpainekin (EITBren kanpainak, batik bat) lotutako partidak dira.

Hirugarren postuan Arkitektura sektorea dago, 3,5 milioi eurorekin. Batez ere Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari lotutako proiektuen partidak dira.

Kultura- eta sormen-industrien (KSI) zeharkako sektorera 1,4 milioi euro bideratu dira; Diseinua sektorera 1,2 milioi euro; Sormen-gastronomia sektorera 1,1 milioi euro; eta, azkenik, Bideo-jokoak sektorera 151 mila euro (sektoreko enpresa edo elkarteei eginiko transferentziak).

Bilakaerari dagokionez, termino orokorretan gertatu bezala, gastu absolutuari begiratzen badiogu, Hizkuntzaren industriak sektorea da gastua gehien areagotu den sektorea: 50,3 milioi euro izatetik 65,3 milioi euro izatera (% 30eko igoera). Igoera hori, batez ere, faktore hauen ondoriozkoa da: HABE - Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea entitateari eginiko transferentziaren areagotzea (aurreko edizioan baino 6,6 milioi euro gehiago), IVAPi euskalduntze eta hizkuntza-normalkuntzarako eginiko transferentziaren areagotzea (3,7 milioi euro gehiago), eta barnetegietako gastuaren areagotzea (2,3 milioi euro gehiago).

Aitzitik, bi sektore hauetan, termino absolutuetan gastuaren areagotzea oso handia izan ez bada ere, termino portzentualetan izandako areagotzea adierazi beharra dago: Bideo-jokoak (gastuaren % 228ko igoera, 46 mila eurotik 151 mila eurora) eta Sormen-gastronomia (gastuaren % 110eko igoera, 500 mila eurotik 1,1 milioi eurora; aurretik adierazitako Basque Culinary Center Fundazioari eginiko transferentzia areagotzearen ondorioz).

**Foru-aldundiak**

Foru-aldundiek sormen-sektoreetara bideratutako guztizko gastu likidatua 26,7 milioi eurokoa da.

EAEko foru-aldundien multzoak 15,9 milioi euro bideratu ditu Arkitektura sektorera 2022an. Gastuan hurrengoa Publizitatea eta marketina da, 6,2 milioi eurorekin; eta, jarraian, Hizkuntzaren industriak dago, 2,9 milioi eurorekin. Kasu honetan, itzulpen-jardueraren ondoriozko gastua da nagusia: foru-aldundiek itzulpenaren arloan eginiko gastua 2,4 milioi eurokoa da.

KSIen zeharkako sektorera 732 mila euro bideratu dira; Diseinura 484 mila euro; Sormen-gastronomiara 242 mila euro; Modara 239 mila euro; eta Bideo-jokoak sektorera 71 mila euro.

Bilakaerari dagokionez, areagotze handia hauteman da Arkitektura sektorera bideratutako gastu likidatuan; izan ere, gastua 2020an 10,6 milioi eurokoa izatetik, 2022an 15,8 milioi eurokoa izatera igaro da (% 50eko igoera). Aitzitik, Hizkuntzaren industriak sektoreko gastua murriztu egin da; 3,3 milioi eurotik 2,9 milioi eurora (% 12ko jaitsiera).

**Udalak**

Udalek sormen-sektoreetara bideratutako guztizko gastu likidatua 50,7 milioi eurokoa da.
Hizkuntzaren industriak eta Arkitektura sektoreak nabarmentzen dira, EAEko udalek horietara bideratutako baliabideengatik. 21,4 milioi euro bideratu dira Hizkuntzaren industriak sektorera: horietatik 18,4 milioi hizkuntza-irakaskuntzara bideratu dira (batez ere euskara). Gastuaren gainerakoa itzulpen-jarduerara bideratu da (3 milioi euro).

Udalek Arkitekturan izandako gastua 17,6 milioi eurokoa izan da 2022an. Jarraian, Publizitatea eta marketina sektorea dago, 10,7 milioi euroko gastuarekin. Eta, azkenik, Diseinua, 2022an 893 mila euroko gastua izan duena.

Bilakaerari dagokionez, ikusten da igoera erregistratu dela aztertutako sormen-sektore guztietan, baina adieraztekoa da Hizkuntzaren industriak sektorean izandako areagotzea, 3,7 milioi euro gehiagoko gastua izan baitu aurreko edizioarekin alderatuta (% 21eko igoera). Azpimarratzekoa da, halaber, Diseinuan izandako gastuaren areagotzea, bikoiztu egin baita 2020. urtearekin alderatuta (418 mila euro izatetik 893 mila euro izatera).

Udalen gastua populazio-habitat eta sormen-sektoreen arabera aztertzen badugu, hauek dira emaitzak:

- 5.000 biztanletik beherako EAEko udalek 5,6 milioi euro bideratu dituzte sormen-sektoreetara. Zifra hori aurreko edizioarekiko nahiko parekoa da, baina pixka bat txikiagoa. Hala ere, ikusi da Publizitatea eta marketina sektorean areagotzea izan dela, sektoreko gastua 1 milioi eurora iritsita.

- 5.000 eta 20.000 biztanle arteko udalek 16,2 milioi euroko gastua izan dute sormen-sektoreetan 2022an (% 17ko igoera 2020. urtearekin alderatuta). Gastua sektore guztietan areagotu da, baina igoerarik nabarmena Hizkuntzaren industrietan izan da, 921 mila euro gehiago bideratu baitira sektore horretara (igoera hori, nagusiki, hizkuntza-irakaskuntzara bideratutako gastua areagotzearen ondoriozkoa da; 5,3 milioi euro izatetik 6,1 milioi euro izatera).

- Sormen-sektoreetara bideratutako gasturik handiena 20.000 biztanletik gorako udalena izan da: 19,3 milioi euroko gastua erregistratu da 2022an, aurreko edizioan baino % 17 gehiago. Gastuaren areagotze hori hauen ondoriozkoa da: Hizkuntzaren industriak sektoreko gastuaren igoera (9,4 milioi eurotik 11,7 milioi eurora; % 24ko areagotzea) eta Publizitatea eta marketina sektoreko gastuaren igoera (3 milioi eurotik 3,6 milioi eurora; % 23ko areagotzea).

- EAEko hiriburuetako udalek 9,5 milioi euro bideratu dituzte sormen-sektoreetara 2022an, 2020an baino 1,3 milioi euro gehiago (% 16ko igoera). Gastuaren areagotze hori bi sektoretan hauteman da: Hizkuntzaren industriak sektorean gastua 612 mila euroan

areagotu da (guztira, 1,9 milioi euro), itzulpenetako gastuaren ondorioz; eta Arkitekturan gastua 595 mila euroan areagotu da (guztira, 4,6 miloi euro), batez ere langileen gastuaren igoeraren ondorioz.

- Gastua sormen-sektorearen eta habitataren arabera aztertuta, 5.000 eta 20.000 biztanle arteko udalek gastu handiagoa dute honako sektore hauetan: Bideo-jokoak, Diseinua, Arkitektura eta Sormen-gastronomia.

- Bestalde, Hizkuntzaren industriak, Publizitatea eta marketina eta Moda sektoreetan, gastu handiagoa dute 20.000 biztanle baino gehiago dituzten udalek.

**3. Grafikoa.** EAEko udalek sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastu likidatua, populazio-habitataren arabera (%). 2022



**4. Taula.** EAEko udalek sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastu likidatua, lurralde historikoaren arabera, 2020-2022.

| Sormen-sektorea | Edizioa | 5.000 biztanletik beherako udalak | | | 5.000 eta 20.000 biztanle arteko udalak | | | 20.000 biztanletik gorako udalak | | | Hiriburuetako udalak | | | Udalak guztira | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Zenbatekoa (€) | % | Bilakaera 2020-2022 (%) | Zenbatekoa (€) | % | Bilakaera 2020-2022 (%) | Zenbatekoa (€) | % | Bilakaera 2020-2022 (%) | Zenbatekoa (€) | % | Bilakaera 2020-2022 (%) | Zenbatekoa (€) | % | Bilakaera 2020-2022 (%) |
| 1. Hizkuntzaren industriak | 2020 | 775.597 | 4,4 | - | 6.241.513 | 35,2 | - | 9.393.872 | 52,9 | - | 1.335.997 | 7,5 | - | 17.746.979 | 100,0 | - |
| | **2022** | **668.680** | **3,1** | -13,8 | **7.162.821** | **33,4** | 14,8 | **11.655.032** | **54,4** | 24,1 | **1.947.607** | **9,1** | 45,8 | **21.434.138** | **100,0** | 20,8 |
| 2. Bideo-jokoak | 2020 | 0 | - | - | 0 | - | - | 0 | - | - | 0 | - | - | 0 | 100,0 | - |
| | **2022** | **0** | **0,0** | - | **70.219** | **100,0** | - | **0** | **0,0** | - | **0** | **0,0** | - | **70.219** | **100,0** | - |
| 3. Diseinua | 2020 | 157.946 | 37,8 | - | 193.076 | 46,2 | - | 67.037 | 16,0 | - | 0 | 0,0 | - | 418.060 | 100,0 | - |
| | **2022** | **144.637** | **16,2** | -8,4 | **472.772** | **52,9** | 144,9 | **275.991** | **30,9** | 311,7 | **0** | **0,0** | - | **893.400** | **100,0** | 103,6 |
| 4. Publizitatea eta marketina | 2020 | 883.974 | 9,5 | - | 2.502.684 | 26,8 | - | 2.968.566 | 31,8 | - | 2.970.977 | 31,9 | - | 9.326.201 | 100,0 | - |
| | **2022** | **1.003.754** | **9,4** | 13,6 | **2.988.285** | **28,0** | 19,4 | **3.635.034** | **34,1** | 22,5 | **3.042.724** | **28,5** | 2,4 | **10.669.797** | **100,0** | 13,7 |
| 5. Moda | 2020 | 0 | - | - | 0 | - | - | 0 | - | - | 0 | - | - | 0 | 100,0 | - |
| | **2022** | **0** | **0,0** | - | **0** | **0,0** | - | **37.500** | **100,0** | - | **0** | **0,0** | - | **37.500** | **100,0** | - |
| 6. Arkitektura | 2020 | 3.922.675 | 23,3 | - | 4.916.431 | 29,2 | - | 4.037.686 | 24,0 | - | 3.961.070 | 23,5 | - | 16.837.862 | 100,0 | - |
| | **2022** | **3.750.422** | **21,4** | -4,4 | **5.550.390** | **31,6** | 12,9 | **3.694.985** | **21,1** | -8,5 | **4.556.371** | **26,0** | 15,0 | **17.552.168** | **100,0** | 3,8 |
| 7. Sormen-gastronomia | 2020 | 0 | - | - | 0 | - | - | 0 | - | - | 0 | - | - | 0 | 100,0 | - |
| | **2022** | **0** | **0,0** | - | **3.412** | **100,0** | - | **0** | **0,0** | - | **0** | **0,0** | - | **3.412** | **100,0** | - |
| Guztira | 2020 | 5.740.192 | 12,9 | - | 13.853.705 | 31,3 | - | 16.467.161 | 37,1 | - | 8.268.044 | 18,7 | - | 44.329.102 | 100,0 | - |
| | **2022** | **5.567.493** | **11,0** | 3,0 | **16.247.898** | **32,1** | 17,3 | **19.298.542** | **38,1** | 17,2 | **9.546.702** | **18,8** | 15,5 | **50.660.635** | **100,0** | 13,9 |

EAEko udalek lurralde historikoen arabera sormen-sektoreetara bideratutako gastu likidatua aztertzen badugu, hauek dira emaitzak:

- Arabako udalek 4,3 milioi euro bideratu dituzte sormen-sektoreetara 2022an, aurreko edizioan baino % 18 gehiago. Gastua areagotu da sormen-sektore guztietan, baina balio absolutuetan areagotze handiena izan duena Arkitektura da: edizio honetan aurrekoan baino 270 mila euro gehiago bideratu dira sektore horretara.

- Gipuzkoako udalek 20,6 milioi euro bideratu dituzte sormen-sektoreetara 2022an, 2020an baino % 9 gehiago. Batez ere Publizitatea eta marketina sektoreko gastua areagotu da; guztira, 903 mila euro gehiago gastatu dira sektore horretan (% 41 gehiago).

- Bizkaiko udalen gastua 2020an 21,7 milioi euro izatetik 2022an 25,7 milioi euro izatera pasatu zen (% 19ko gorakada). Udal horien gastua sormen-sektorearen arabera aztertzean ikus daiteke bilakaera positibo handiena izan duen sektorea Hizkuntzaren industriena izan dela; edizio honetan 3,6 milioi euro gehiago bideratu dira sektore horretara. Ia sormen-sektore guztietan gailentzen da Bizkaiko udalek eginiko gastua: Bideo-jokoak (gastuaren % 100 Bizkaiko udalen eskutik), Publizitatea eta marketina (% 61), Moda (% 100) eta Arkitektura (% 49).

Gipuzkoako udalen gastua gailentzen da Diseinuan (gastu osoaren % 49), eta Arabako udalena Sormen-gastronomian (gastuaren % 100).

Hizkuntzaren industriak sektoreko gastuaren zati handiena nahiko ekitatiboki banatzen da Gipuzkoako eta Bizkaiko udalen artean (% 47 lurralde historiko bakoitzeko udalek).

**4. Grafikoa.** EAEko udalek sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastu likidatua, lurralde historikoaren arabera (%). 2022



**5. Taula.** EAEko udalek sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastu likidatua, lurralde historikoaren arabera, 2020-2022.

| Sormen-sektorea | Edizioa | Arabako udalak | | | Gipuzkoako udalak | | | Bizkaiko udalak | | | Udalen guztizkoa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Zenbatekoa (€) | % | Bilakaera 2020-2022 (%) | Zenbatekoa (€) | % | Bilakaera 2020-2022 (%) | Zenbatekoa (€) | % | Bilakaera 2020-2022 (%) | Zenbatekoa (€) | % | Bilakaera 2020-2022 (%) |
| 1. Hizkuntzaren industriak | 2020 | 932.766 | 5,3 | - | 10.157.361 | 57,2 | - | 6.656.852 | 37,5 | - | 17.746.979 | 100,0 | - |
| | **2022** | **1.059.635** | **4,9** | 13,6 | **10.162.008** | **47,4** | 0,0 | **10.212.495** | **47,6** | 53,4 | **21.434.138** | **100,0** | ↑20,8 |
| 2. Bideo-jokoak | 2020 | 0 | - | - | 0 | - | - | 0 | - | - | 0 | - | - |
| | **2022** | **0** | **0,0** | - | **0** | **0,0** | - | **70.219** | **100,0** | - | **70.219** | **100,0** | - |
| 3. Diseinua | 2020 | 64.919 | 15,5 | - | 138.377 | 33,1 | - | 214.764 | 51,4 | - | 418.060 | 100,0 | - |
| | **2022** | **165.600** | **18,5** | 155,1 | **433.787** | **48,6** | 213,5 | **294.012** | **32,9** | 36,9 | **893.400** | **100,0** | ↑103,6 |
| 4. Publizitatea eta marketina | 2020 | 900.201 | 9,7 | - | 2.213.656 | 23,7 | - | 6.212.344 | 66,6 | - | 9.326.201 | 100,0 | - |
| | **2022** | **1.063.918** | **10,0** | 18,2 | **3.116.743** | **29,2** | 40,8 | **6.489.136** | **60,8** | 4,5 | **10.669.797** | **100,0** | ↑13,7 |
| 5. Moda | 2020 | 0 | - | - | 0 | - | - | 0 | - | - | 0 | - | - |
| | **2022** | **0** | **0,0** | - | **0** | **0,0** | - | **37.500** | **100,0** | - | **37.500** | **100,0** | - |
